

## **KONTROL MOZIOA**

### **GLIFOSATOAREN ERABILERA DELA-ETA**

Ayem Oskoz Urrutikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko irailaren 17an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **AZALPENA**

2018ko iraileko batzordean gai honen inguruan eztabaidatu ostean, une honetan Udal Gobernutik emandako erantzunaren arabera, glifosatoa ordezkatzeko lanetan ari dira, nahiz eta ez duten oraindik ere behin betiko prozedurarik ezarri belar eta lorategien mantenimendu lanetan erabiltzen diren produktuei dagokienez.

Bestalde, Udal Gobernuak argitu zuen lan hauek aurrera eramateko gaur egungo emakida 2019ko apirilaren 30ean amaituko dela. Hau ikusirik, 2019ko maiatzetik aurrera, esleipenean ezinbestekoa da Udalak preseski glifosatoaren eta giza osasunerako kaltegarriak diren gainerako produktuen erabilera debekatzea.

Horregatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, lorategi eta parkeen mantenimendurako egungo esleipena bukatu eta berria sinatzen denean (2019), berma dezala animalientzat eta giza osasunerako kaltegarria den produkturik ez erabiltzea, glifosatoa kasu, kutsakorrek diren produktuak preseski debekatuz.

Donostian, 2018ko irailaren 20an

Ayem Oskoz Urrutikoetxea  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia